



GAIA: COVID-19AREN PANDEMIAK ERAGINDAKO OSASUN ALERTA DELA ETA, ELKARTEEN ETXEA ERABILTZeko JARRAIBIDEAK

Hainbat pertsonak Elkarteentzako Etxeen erabilerari buruz egin dituzte kontsultak osasun alertako egoera honetan, bai erakunde bakoitzaren egoitzei dagokienez, bai areto komunei dagokienez. Horregatik igortzen da zirkular hau.

LAGATAKO LOKALEN ERABILERA

Elkarteentzako Etxeetan lokalak erabiltzeko baimena duten elkarteek beren espazioak erabili ahal izango dituzte, behar duten neurrian, gaur egun ezarritako segurtasun neurriak betez, honako hauek barne:

- Higiene-neurriak (eskuak maiz garbitzea ura eta xaboiarekin edo hidrogel alkoholikoa erabilita).
- 2 metroko distantzia sozialari eustea.
- Norbera babesteko ekipamendua (NBE) erabiltzea (maskarak edo pantailak), bi metroko distantzia soziala etengabe bermatu ezin bada.

Partikularrei arreta ematen bazaie, hitzordua eskatu beharko diote zerbitzua ematen duen elkarteari, eta lehentasuna emango zaio telefono edo posta elektronikoko bidezko arretari.

Baldin eta, kausalitatez, elkarte baten edo elkarte batzuen zerbitzuak jasoko dituzten pertsona bat baino gehiago joanez gero, itxaronaldia Etxetik kanpo egingo da, leku irekietan. Elkarte bakoitzeko arduradunak arduratuko dira horretaz, eta itxaroten dauden pertsonen dagozkien jarraibideak emango dizkiete.

Lokal bat hainbat elkarteren egoitza bada, haien artean ados jarri beharko dira segurtasun arauak betetzeko, eta, beharrezkoa izanez gero, txandakatze-sistema bat gomendatuko da.

BILERA GELAK

Bilerak egin ahal direnean, gelak eskatu ahal izango dira ohiko prozedurari jarraituz.

Osasun Ministerioaren Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planak ezarritako faseek zehaten duten edukiera-ratioa errespetatuko da, betiere bertaratutakoaren arteko bi metroko tartea errespetatuz.

Gela	Edukiera	1. faseko edukiera	2. faseko edukiera	3. faseko edukiera
Itziar	25	8	8	13
Rogelia de Álvaro A	25	8	8	13
Rogelia de Álvaro B	25	8	8	13



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Simone de Beauvoir 3. pisua	25	8	8	13
Simone de Beauvoir 2. pisua	45	14	14	23
Rosa Parks	25	-	8	13

Erabilera komuneko materialak erabiliz gero (proiektorea, urrutiko agintea edo pantaila), erakunde antolatzailearen betebeharra izango da horiek garbitzea ileak askatzen ez dituen trapu leun batekin eta Udalak emango duen uraren% 30 eta alkohol isopropilikoaren% 70 duen soluzio batekin.

Halaber, mahaiko gainazala eta erabilitako aulkiak garbituko dira, aretoa erabiliko duten pertsonen segurtasuna eta higiena hobetzeko.

Bestalde, Partaidetza Zerbitzuak bilera gelak erabiltzeko aurreikuspenaren berri emango dio Garbiketa Zerbitzuari, garbiketa-taldeek guneak desinfektatu ahal izan ditzaten lanaldiaren hasieran edo amaieran. Jakinarazpen hori ostiraletan egingo da.

UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK

Espazioen ohiko garbitasunaz eta komunetan aurki daitekeen xaboi eta paperaz gain, Udalak gel hidroalkoholkoa jarriko du Elkartearen Etxeetarako sarbideetan eta bilera-geletan, erabiltzaileen segurtasunerako.

Juan Carlos Alonso Quilchano
Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko burua